

HEGO HAIZEA

Iratí Mogollon Garcia, 17 urte

Lezo

Hego haizea naiz.

Tupustean sortzea da nire izana, zerua oskarbi dagoenean, eguzkiak bere besoen luzakin diren izpiez mundua berotzen duen bitartean bertaratzea nire egitekoa.

Besarkada hori etengo dut oihu mutu batez eta zuhaitzak, etxeak, hostoak, gizakiak... guztiak astinduko ditut hisiaren minez.

Inbidiak errailak urratzen dizkidalako.

Materiagabea naizelako, hutsala. Eta haren berotasun mezuek, gainontzekoei ez bezala, zeharkatu egiten nautelako... haren goxotasunak, xamurtasunak esku bien artetik ihes egiten didaten urre koloreko zera likatsuak direlako. Ozeano erdian hiltzen naiz egarritz. Ezin jasan dezaket, beraz, egun eguzkitsu eta lainobako batek sorturiko guztia: Loreak, haiengan bilduak egoteari utzita, zabaldu egiten dituzte besoak argitasunak guztiz ziprztindu ditzan. Jendea irribartsu irteten da etxeetatik, berriketa bixiak mantenduz kaleetan zehar. Txakurrak jolasean,

txoriak txioka... beraien bizipoza adierazten lau
haizetara.

Eta ni zoragarria izan beharko zukeen giro honen
ikusle pasibo izatera kondenatzen naute.

Amorrua pizten zait –noizbati lozorroan egon
izan bada behintzat–, eta honek ezinbestean
anabasa zabaltzera behartzen nau. Hego haizea
bainaiz, inguruak harrotzeko izan nintzen sortua
eta, esaerak dioen bezala, patuari ezin ihes egin,
ezta? Hasieran xamurtasunez higitzen ditut zuen
arropak, zuhaitzetako adartxoak, zelaietako belar
berde mehe gazteak... guztiak dira niregatik
ferekatuak izanen. Gutzira, ordea, barruan
ereinak izan diren pozoi haziak loratzen doaz,
nire laztanak eraldatzen dira. Sortu berri den
landarearen sustrai eta adarrek agudo barreneko
azalera osoan hedatzen diren arte. Matxinada
hasia da, lotua bainago.

Haize izpirik ez zegoen eremuak harrotuz noa.

Patxada besteentzat eta saminak niretzat.

Beldurtuko ditut loreak, berriz ere haien
bakardadean uzkurto eta babestu daitezen. Nire
ohekide diren hodei grisak ekarriko ditut,
jendearen kalakak deseroso bihurtu ditzaten.

Txakurrak ihesari ekingo diote nire haize garrasi
eta uluengatik. Eta txoriak bortizki erauziak
izango dira, beraien txikitasunak hunki nazakeen
arren, nire indarrak ez du inolako izakirik
barkatuko. Ni neu bakardadearen zapore
mikatzek barkatzen ez nauten modura.

Hala, konturatzeko, nik sortutako haize

korronte handiek astinduko dute ingurua,
hainbestetan astintzen nauen inguru bera. Eta
ondoren, indarrak ahiturik, alde egitera
beharturik aurkitzen naizenean, euri zaparrada
utziko dut atzean. Lehen aipaturiko maitale
ilunek beren lana txukun beteko baitute. Beti
betetzen dute; beti.

Azkenean, nire harrizko kobazulora bueltatuko
naiz herrestan.

Iluntasun artean murgildu eta, betiko moduan,
loak eraman nazan saiaturiko naiz.

–Alferrikako lana behin eta berriz burutu
nahirik–.

Izaren antzera gauero biltzen nauten sentsazioak
ezberdinak izango dira, ordea. Nire antzera,
pertsonea anitz izango dira eta loak hartu ezinik,
arratsalde partean altxatu den haize bolara trinko
hark sortutako estuasun eta urduritasuna
kanporatu ezinean.

Ez naiz, beraz, hain bakarrik sentituko.

Ez naiz, beraz, hain galdurik sentituko. Ez naiz,
beraz, hain alienatua sentituko. Ez naiz, beraz,
hain

Hego haize sentituko.